

SOILTASUNAREN ZAILTASUNAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erroma, K.a. I. mendea. Ovidio poetak idatzi zuenez, “zatarrak dira belarrik gabeko zelaia, hostorik gabeko zuhaixka eta ilerik gabeko burua”. Eta ez zen kezka hori azaltzen lehena. *Ebers* papiroan (K.a. 1.500 urte inguruko medikuntzako tratatua) jasotzen denez, Egipton burusoiltasunaren aurka Ra jainkoari eskainitako araoa errezitatu behar zen eta gero buruan tipulaz, berun gorriz, eztiz, burdinaz eta alabastroz egindako ukendua eman. Beste nahastura batekin ere saiatu ziren: lehoi, hipopotamo, krokodilo eta suge gantzez egindako erremedioa.

Antzinako Grezian, Aristoteles saiatu zen buruko ile eskasiaren azalpena aurkitzen: “Lizunkeriak gorputzaren goiko aldea hozten du, odol gutxi iristen delako, eta gorputz-atal horietan ez da elikagaia digeritzen. Elikagairik jaso gabe, ilea erori egiten da”. Hipokratesek (K.a. 460-370 inguruan) bere burua akuritzat erabili zuen: errefauz, kuminoz, uso zirinez eta asunez egindako sendabidea ematen zuen buru-azal garbian. Hainbeste lotsatzen zuen fenomenoaz azaltzeko Aristoteles baino finago ibili zen: eunukoek ilerik galtzen ez zutela konturatu zen, eta lehena izan zen ile galera sexu-organoekin lotzen. Berak ez zekien zergatik gertatzen zen, baina XX. mendean zientzialariek frogatu zuten barrabilak erazuta ez dela DHT



Julio Zesar, burusoiltasuna disimulatzeke erabili zuen erramu koroarekin irudikatua.

CLARA GROSCHE

(dihidrotestosterona), gizonezkoen burusoiltasunaren eragile nagusia ekoizten. Beraz, Hipokratesek erremedioa aurkitu zuen, zikiratzea, baina ez zuen arrakasta handirik izan.

Julio Zesarrek (K.a. 100-44), itxuraz, beldur handiagoa zion ilea galtzeari martxoko idusei baino. Suetonio historialariak jaso zuenez, “adats eskasa burugainetik aurreraka orrazteko ohitura zeukan”. Kleopatrak berak ukendu

bat prestatu omen zion, sagu errautsez, hartz koipez, zaldi hortzez eta oreinaren hezur-muinez egin. Emaitzarik lortu ez zuenez, disimulatzea beste biderik ez zuen ikusi. Garaipen militarretan soilik erabili ohi zen *corona laurea* edo erramu koroa egunero erabiltzeko baimena eskatu zuen senatuan eta, horrenbestez, handik aurrera, konplexu estetikoaren sintoma enperadoreen boterearen ikur bihurtu zen. ■



LEON MOREL-FATIO

Itsasontzien eta zaldien arteko gudua

1795eko negu gogorrean, frantziarrak Zazpi Herbehere Batuen Errepublikaren aurkako gerran ari ziren, Iraultzako ideiak Europan zabaltzeko asmoz. Holandar ontziteria Marspied itsasartean harrapatu zuen ekaitzak eta aingurak Texel uhartearen babesean bota zituzten. Baina itsasoko urak izoztu eta ontziak harrapatuta geratu ziren. Horren berri

jakin eta tropa iraultzaileek urtarrilaren 22an inguratu zuten ontzidia. Biharamunean, historian lehenengoz, zalditeriak itsasontzi multzoa hartu zuen mendean. Baina inork ez zuen su egiteko beharrik izan, orduantxe iraultzaileek Amsterdameko gobernua hartu baitzuten. Errepublika zaharreko itsas armada erresistentziarik gabe errenditu zen. ■